



LEGEEN GEROA JARDUNALDIETAKO ONDORIOAK

1- Arartekoaren Legea aldatzeko beharrari buruz

- Jardunaldi hauek gogorarazi digute Arartekoaren Legea konplexutasun politikoko testuinguru batean egin zela, non Legebiltzarreko taldeen arteko adostasunaren bilaketak legea onartzeko beharrezko bultzada eman baitzion. Egokia izango litzateke **Legearen edozein aldaketak adostasun-espíritu hori berretsiko balu**, izan ere, adostasun horrek legitimitate handia eman dio erakundearen 38 urteko ibilbidean.
- Proposatzen den aldaketarekin, Arartekoaren Legea **Europa mailan garaturiko esparru berrira egokitu beharko litzateke, bere mandatuan eta funtzionamenduan eboluzionatzeko**, egungo erronketara hobeto egokitzen den erakundearen legezko konfigurazioaren bidez, erronka horiek eragin nabarmena baitute herritarrengan eta eskubideei dagokienez dituzten aukeretan.
- Arartekoak **zeregin garrantzitsua izan dezake bere lege propioa aldatzeko proposamenean**, 3/1985 Legearen lehenengo xedapen iragankorrean ezartzen den bezala.
- Proposatzen den aldaketa, edozein kasutan, **erakundearen esperientzia pilatuan inspiratu** beharko da, urte hauetan egindako lanaren ebaluazio arduratsua oinarri hartuta; horretarako, erabakigarriak dira erakundeak berak euskal legegileari egin diezazkiokeen ekarpenak.

2- Kokapen instituzionala eta bere mandatua defentsa-erakundeek aplikatzen dituzten Europako estandar berrietara egokitzeko beharrari buruz

- **Nazioarteko instantziak aliatu garrantzitsuak dira gure erakundeentzat**, beren independentzia, legitimitatea eta premia babesten eta indartzen baitute.
- Europako Kontseiluaren esparruan, **defentsa-erakundeak giza eskubideen babes-sistemaren parte erabakigarri ere dira**, izan ere, beren lana osatzen dute, prozesu demokratikoen gardentasuna bermatuz eta estatu-, eskualde-edo toki-mailan giza eskubideen eta Estatuaren gobernantza onaren zaindari gisa jardunez.

Legeen Geroa
Arartekoaren Legea. Etorrizuna eraikitzen:
Herriaren defentsa-erakundeek buruzko hausnarketa
Vitoria-Gasteiz, 2023/06/12-13

- Bereziki, **Veneziako Printzipioen** garrantzia azpimarratu da —“*golden standards*” gisa—, izan ere, **Ombuds erakundeen funtzionamendu ona eta independentzia indartzeko nazioarteko estandarren multzorik osatuena** (eta lehenengoa) osatzen baitute, eta, besteak beste, beren hautaketari, mandatuari, ikerketa-botereei eta aurrekontu-bermeei dagokienez behar-beharrezko parametroak bermatzen dituzte.
- Gainera, Nazio Batuen laguntzaren ostean, agerian jarri da estandar horiek **munduko defentsa-erakunde guztietara hedatzen direla eta estatu-kideei ere zuzentzen zaizkiela**, eta horiek erakunde hauek babes ditzaten bilatzen da, estandar horiek benetan betetzea bultzatuz. Horrek euskal botere publikoak ere konprometitzen ditu, Arartekoaren lege-esparrua aldatzeari dagokionez.

3- Esparru berri honetatik eratorritako lege ferenda erronka zehatzei buruz

➤ Independentzia

- Nazioarteko estandarrek **Ombuds erakundeen erabateko independentzia** eskatzen dute, justifikaziorik gabeko interferentzietatik babesteko. Veneziako printzipioak, hain zuzen ere, aipaturiko independentzia ziurtatzeko suebaki juridikoak dira. Jardunaldietan zehar, ahots batzuk irmoak izan dira ohartarazi dutenean defentsa-erakundeak ezin direla egon inongo mandaturen menpe. Horren ondorioz, gogorarazi da garrantzitsua dela independentzia mantentzea Eusko Legebiltzarraren aurrean ere, ez bailitzateke azken horren jarraibiderik jaso behar; hala ere, posible da erakundeen arteko lankidetzaren indartzea, onartutako hartu-emanaren bidez.
- **Arartekoak Eusko Legebiltzarrarekin** duen harremanari dagokionez, adierazi da aukera dagoela prozedura bat formalizatzeko legebiltzarkideek Arartekora beren kexak helaraz ditzaten; era berean, formula desberdinak proposatu dira Arartekoa eta haren ondokoa izendatzeko ereduaren zenbait alderdi berrikusteko. Halaber, jarduneko mandatua luzatzeko aukera adierazi da, bere mandatua iraungi ostean beste izendapenik egin ez bada; era berean, aipatu da beharrezkoa dela Eusko Legebiltzarrarekin komunikazioa indartzea, bereziki, urteko txostenari dagokionez.

➤ **Bere harremanak beste erakunde homologo batzuekin**

- Beste erakunde batzuekiko harremanei dagokienez, azpimarratu da Europako Kontseiluak **estatu beraren barruan jarduten duten defentsa-erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazio eraginkorra** gomendatu duela, bai eta elkarrizketa ere **giza eskubideen eskualdeko eta nazioarteko erakundeekin**, ezagutza partekatzeko eta, hala, beren funtzionamendua aberasteko, erakunde homologoen esperientziarik eta praktikarik aurreratuenak txertatuz. Xede horrexetarako, Europako defendatzaileak gogorarazi digu garrantzitsua dela **Europako beste defentsa-erakunde batzuekin** harremanak izatea, ENO sarearen baitan.
- Bereziki, **autonomia-erkidegoetako defentsa-erakundeen eta Espainiako Herriaren Defendatzailearen arteko harremana legez eguneratzeko beharra** nabarmendu da, izan ere, oraindik indarrean dagoen *36/1985 Legea, Espainiako Herriaren Defendatzailearen eta autonomia-erkidegoetako defentsa-erakundeen arteko harremanak arautzekoa*, ez da behar bezala egokitzen eskumenak banatzeko sistema konstituzionalera, eta autonomia-erkidegoen erabateko autonomia zalantzan jartzen du beren garapen instituzional propioan.

➤ **Mandatu hedatzeko egokitasunari buru, horren eginkizunak birdimentsionatuta**

- Hainbat hitzalditan azpimarratu da **defentsa-erakundeen mandatu hedatzeko beharra**, izan ere, Veneziako Printzipioen arabera, horiek administrazio txarra prebenitu eta zuzendu behar dute, eta giza eskubideak babestu eta sustatu behar dituzte.
- Horren haritik, **gizarte-erakundeekin lankidetzan aritzeko** eskatu da, herritarrengana modu proaktiboan iristeko, bereziki, talde zaurgarriengana, eta, era berean, **herritarrengana hurbiltzeko eta horiekin komunikatzeko bideak** hobetzeko (adibidez, bitarteko pertsonen bitartez —eredu holandarra—), gutxien entzuten diren ahotsen bozgorailu gisa baliatzeko eta horien eskaerak behar bezala bideratzeko.
- Era berean, **defentsa-erakundeek herritarrekiko duten jarrera herritarren partaidetzarako bide** gisa identifikatu da, bereziki, **demokrazia deliberatiboaren** planteamendutik abiatuta, hiru alderditan planteatua: defentsa-erakundeak, administrazioa eta herritarrak.

- Halaber, **bitartekaritza-formulen edo –zentzu zabalago batean– justizia errestitatibora bideratutako beste formula batzuen** egokitasuna defendatu da, gatazkak bake-kulturatik abiatuta konpontzeko formula gisa, Arartekoak bere gain har ditzakeena bere eginkizunen eta lan egiteko moduen barruan.
- Bizitza-kostuaren egungo krisi-egoeran, **interes orokorreko zerbitzuak (titulartasun pribatukoak zein publikokoak diren kontuan hartu gabe)** gainbegiratu eta kontrolatzeko beharra aipatu da, pribatizazioa geroz eta handiagoa dela ikusita, pertsonen eskubideetan eragin handia baitute, bereziki, pertsona zaugarrienen eskubideetan.
- Eztabaidatu da ea komeni den Arartekoari **legitimazio aktiboa** ematea EAEko zenbait legeren aurka **konstituzio-kontrakotasun errekurtsuak** jartzeko edo *amicus curiae* gisa **auzitan aritzeko**, giza eskubideekin lotutako kausak defendatzeko. Horri dagokionez, zuhertasunez jokatzeko deia egin da, alderdi gisa posizionatzeak ekar lezakeen *auctoritas* galeragatik. Era berean, eginkizun judizialak ez oztopatzeko beharraz ohartarazi da.
- **Legegileari legeen gabezien inguruan kontsulta egiteko eta ohartarazteko eginkizuna** aipatu da, legeak abian jartzeko gerora zailtasunak sortu direlako edo herritarren eskubideetarako bermerik aurreikusten ez delako.
- **Administrazioari laguntzeko eginbehera betearaztera behartzeko eredu**en inguruan eztabaidatu da, eta beren-beregi aipatu dira hertsapen-isunak eta beste formula batzuk, hala nola betebehera bete ez duten administrazioak ezagutaraztea (erregistroak) edo bide penala.

4- Gure ordenamenduan aurreikusitako edo egungo gizarte-eskaeretatik eratorritako beste eginkizun batzuk

- **Diskriminazioa kontrolatzeko eginkizunaren** inguruan hausnartu da, eta eginkizun hori beste mandatu batzuekin batera biltzearen eta figura bakar baten (hala nola herriaren defentsa-erakundea, erakundearen independentzia bermatzen duena) barruan kokatzearen onurak nabarmendu dira. Honek arazo zabalagoak hobeto lantzea errazten du, begirada integral batekin. Diskriminazioa kontrolatzearen kasu zehatzean, adierazi da komenigarria dela defentsa-erakundeen eskumenak partikularren arteko harremanetara zabaltzea, diskriminazioen iturri ohikoena baita. Era berean, adierazi da aukera dagoela Arartekoarentzat zehatzeko ahalmenik ez eskatzeko, baina,

hala badagokio, esku har dezala, administrazioko erakunde betearazleek duten zehatzeko ahalmena gomendioen bidez gainbegiratzuz.

- Haurrak beren eta etorkizuneko belaunaldien eskubideak defendatzeko bultzatzen ari diren mugimendu globalak haur horiek gure erakundeetan parte hartzea bultzatzen du, bai eta haurren eskubideak babesteko dugun betebeharra ere, beren ahotsa aintzat hartuta. Ombuds erakundeek **haurren eskubideen defentsa-eginkizunetan** duten jarrera instituzionalaren inguruan hausnartu da. Eredu hibrido bat bultzatzeko apustua egin da, haurrekin adeitsuak diren ikerketak gauzatzeko lana eta adingabeen gaineko politiketan eta legerian eragiteko lana barne hartzen dituena.
- **Gardentasun-kontrola** planteatu da, defentsa-erakundeen eginkizun gisa, eta horretako bitartekoak izan beharko lituzke. Gardentasuna indartzeko asmoak defentsa-erakundeen barne-jardueran ere aplikatu ahal izan behar du. Horren haritik, herritarrekiko harremanetan gardentasuna areagotzeko eskatu da, horien parte-hartzea bultzatze aldera (adibidez, agendak argitaratuz edo gizarteak aukeratutako kontseilu aholku-emaile bat sortuz).
- Hausnartu da defentsa-erakundeek zer eginkizun duten **geroz eta digitalizatuago dagoen administrazio** batera iristeko eta horrekin elkarreragiteko orduan herritarrak babesteko. Herritarrek ematen duten onespina beren datu pribatuak zerbitzu publikoek edo pribatuek erabil ditzaten eta pertsona zaurgarrienen integrazioa (desgaitasuna dutenak eta adinekoak) garrantzi handiko kontuak dira. Garrantzi handiko beste gai bat **adimen artifiziala** da, horren bilakaera etengabeak dakartzan arronka eta arriskuak. Europa mailan prestatzen ari den arauketa erabakigarria izango da esparru horretan. Nolanahi ere, adimen artifizialak defentsa-erakundeen eginkizunetan eraginkortasuna hobetzeko eskain ditzakeen aukerak ere aipatu dira.
- Giza eskubideen babesa eta, bereziki, **defentsa-erakundeek salatzaileak babesteko duten eginkizuna** sustatuko duen **administrazio-kulturaren** garrantzia nabarmendu da, zeina estatuek Whistleblowersi buruzko Europako Zuzentaraua abian jartzen dutenetik aurrera garatuko baita.